

BEZEROA: Segmentazioa

Gure bezero segmentua, festak eta kontzertuak antolatzen dituzten nazioarteko erakundeak eta enpresak izango dira. Guk beraieri salduko diegu gure produktua, eta ondoren haiek, publikoari, hau da, produktua kontsumituko duten horiei salduko diete gure edalontzia. Publiko hau bereziki gazteak izango dira, izan ere, gauetan festetara joaten direnak haiek izaten dira oro har.

Festa, festibal eta kontzertu bakoitzera egokitutako edalontzi pertsonalizatuak izango dira. Biniloz apaintzeko aukera emango zaie erosleeri. Adibidez, abeslari batek kontzertu bat egiten badu eta kontzertu hori antolatzen duten pertsonak gurekin kontaktuan jartzen badira, kontzertua emango duen abeslari horrekin zerikusia duten gauzeekin (bere izena, esaldi esanguratsuak, argazkiak edo logoak) pertsonalizatzeko aukera izango dute.